

EAEko NEKAZARITZAREN, BASOGINTZAREN ETA ARRANTZA ETA AKUIKULTURA PRODUKTUEN SEKTOREETAN I+G+Bko LAGUNTZAK 2018

Xedea eta helburua:

Laguntzek eraginkortasuna areagotzea eta lehiakortasuna hobetzea eta, hazkunde jasagarriaren alde egitea eta EAEko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza eta akuikultura-produktuen sektoreen arteko elkarlana bultzatzea dute helburu.

Laguntza-ildoak:

- a. Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzak.
- b. I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak. (jo lehenengo Ikerketaren arloko errektoreordearengana (IAE))

Proiektuen iraupena:

- a. Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko eta antolaketaren arloko berrikuntzako proiektuetarako laguntzak

	Hasiera data	Amaiera data	Luzapena
Urtebete irauten duten proiektuak	2018ko aurrekontu-ekitaldia	2018/12/31	2019/12/31
Hainbat urtetarako proiektuak	2018ko aurrekontu-ekitaldia	2019/12/31	2020/12/31

- b. I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak

	Hasiera data	Amaiera data	Luzapena
Urtebete irauten duten proiektuak	2018ko aurrekontu-ekitaldia	2018/12/31	2019/12/31

Diruz lagundu daitezkeen kostuak:

1.- Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzetarako diruz lagundu daitezkeen kostuak hauek izango dira:

A.- Langileen gastuak, ikertzaileen, teknikarien eta gainerako laguntzaileen gastuak, betiere dagokion proiektuan aritzen diren neurrian.

B.- Tresna eta materialen kostuak, behar den neurrian eta ikerketa-proiekturako erabiltzen den aldian.

C.- Eraikin eta lursailen kostuak, ikerketa-proiekturako erabiltzen diren neurrian eta hark dirauen bitartean.

D.- Kontratu-ikerketari, jakintza teknikoei eta kanpo-iturrien lizentzia bidez erositako edo lorturiko

patenteei dagozkien kostuak, baita aholkularitza-kostuak eta ikerketa-jarduerari soilik

bideratutako zerbitzu baliokideen kostuak ere.

E.- Gastu orokorrak eta ustiapeneko beste gastu batzuk, hor sartuta materialen, horniduren eta zuzenean jardueratik eratorriko halako produktuen kostuak.

Garrantzitsua:

Ez da onartuko gasturik sartzea aurrekontuan B eta C partidetan, programaren iraupenak ezinezko egiten baitu guztiz amortizatzea.

Ez da aholkatzen langileen kontratazioa aurrekontuan sartzea (A partida) proiektuaren kargura, finantzatzen diren zenbatekoak direla eta.

Laguntzen zenbatekoa:

- a. Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzak
 - i) Oinarrizko ikerketarako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %100eraino.
 - ii) Ikerketa industrialerako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %50eraino.
 - iii) Garapen esperimentalerako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %25eraino.
- b. I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntza, diruz laguntzeko moduko kostuen % 50eko laguntza emango zaie.

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntza zehatza: (Irizpideak ikusi 10. Oinarrian)

Puntuazioa	Finantzazioa
Puntu gehien lortu duten proiektuak	%100
1-5 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%95
6-10 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%90
11-15 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%85
16-20 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%80
21-25 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%75
26-30 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%70
31-35 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%65
36-40 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%60
41-45 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%55
46-50 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%50
51-55 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%45
56-60 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%40
61 puntutik aurrera	Ez da laguntzarik emango

GARRANTZITSUA: Errektoreordearen sinadura lortu ahal izateko, egiaztatu egin behar da eskatzen den zenbatekoaren %20a, gutxienez, eskuragarri dagoela, ahal delarik taldeak dituen kredituen bidez, eta horien izaera edo jatorria kontuan hartuta hirugarrenei justifikatu beharrik ez dutenak.

Oharra: Langile-gastuak diruz lagundu daitezkeen kostuak dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta era:

Eskaerak aurkezteko epea **2018ko ekainaren 9an amaituko da.**

GARRANTZITSUA: Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren epeetan jasotzen diren eskaerak aurkeztuko ditu. Ezin izango da ziurtatuko epe horietatik kanpo jasotako eskaerak epean aurkeztu ahal izango direnik.

<p>2018ko ekainaren 20a (egun hori barne)</p>	<p>Eranskina bidali behar da, proposatutako langileen zerrenda eta funtsen eskuragarritasuna jasotzen duena, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, gaian "EAEko Nekazaritzaren, Elikagaien eta Arrantzaren Sektoreetan I+G+Bko laguntzaka" jarrita. HEMEN Bestalde, erantzukizunpeko adierazpen sinatua erantsiko da, IA Eren webguneko ereduaren arabera.</p>
<p>2018ko ekainaren 4a (egun hori barne)</p>	<p>Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdien Atalean (Errektoregoko eraikina, Leioa) dokumentazio guztia jasotzeko azken eguna da, eskaeran UPV/EHU koordinatzaile moduan agertzen den kasuetarako. Bidali beharreko dokumentazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Eskaera</i> ✓ <i>Memoria</i> ✓ <i>Erantzukizunpeko adierazpen sinatua</i> (IAE eredu) <p>Horretaz gain, pdf formatuan hurrengo dokumentuak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ <i>Eskaera sinatuta</i> ✓ <i>Memoria</i> <p><u>Dokumentu horiek Errektoreak sinatu behar ditu, horregatik, denbora nahikoarekin bidali behar dira epean aurkeztu direla ziurtatu ahal izateko.</u></p> <p>Garaiz heltzen ez diren eskaerak ikertzaile nagusiak, berak, aurkeztu ahal izango ditu. Kasu horretan, eskaera aurkeztu ondoren, dokumentu guztien kopiak bidali beharko dira convocatorias.dgi@ehu.eus artxibatu daitezten.</p>
<p>2018ko ekainaren 9a</p>	<p>ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.</p>

UPV/EHU ren datuak:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)

Harremanetarako:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA (EUSKO JAURLARITZA)
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.eus	94 5 01 63 14 s-martinez@euskadi.eus

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru_laguntza/2018/i+g+b-2018/